

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ZIGOITIKO UDALA

**Administrazioen arteko hitzarmena sinatzea, Tokiko Agenda 21 eta ingurumen arloan laguntza teknikoko zerbitzuaren prestazioaren ardura ematekoa**

#### **ZIGOITIKO UDALAREN ETA GORBEIALDEKO KUADRILLAREN ARTEKO ADMINISTRAZIOEN ARTEKO HITZARMENA, AZKEN HORREK TOKIKO AGENDA 21 ETA INGURUMEN ARLOAN LAGUNTZA TEKNIKOKO ZERBITZUAREN PRESTAZIOA EMAN DEZAN**

Ondategi, 2018ko irailaren 11.

#### BILDU DIRA

Batetik, Mikel Las Heras Martínez De Lopera jn., Zigoitiko Udaleko alkate udalburua, dagokion ordezkariarekin jardunez, 7/1985 Legearen 21.1.b) artikulua dela bide, apirilaren 2koa, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen; hitzarmen hau sinatzeko baimenduta dago Osoko Bilkuraren erabakiaren bitartez, 2018ko irailaren 19ko saioan hartutakoa. Ziortza Guinea Gutiérrezen laguntza du, udaleko idazkari kontu hartzailea den aldetik, hitzarmen honen fede emateko.

Eta, bestetik, Xabier Álvarez De Arcaya Fernández De Landa jn., Gorbeialdeko Kuadrillako presidentea, horren izenean eta horren ordezkari gisa, Kuadrillako Batzarrak 2018ko uztailaren 4ko saioan hartutako erabakiaren bitartez hala izendatutakoa.

Bi aldeek egintza hau egiteko aski eta beharrezko lege gaitasuna aitortu diote elkarri, jarraian azalduko diren aurrekariak kontuan hartuz:

#### AURREKARIAK

**LEHENENGOA.** Gorbeialdeko Kuadrillako Batzarrak, 2013ko apirilean egindako saioan, kuadrilla horretako udal taldean Tokiko Agenda 21eko prozesuak garatu eta dinamizatzeko laguntza teknikoko zerbitzua kontratatzea erabaki zuen; hasieran urtean 800 orduko prestazioa kontratatzea erabaki zen, Aramaio, Urkabustaiz, Zigoitia eta Zuiako udalen artean urteko 200 orduko banaketarekin.

Zigoitiko Udalaren Osoko Bilkurak 2013ko ekainaren 27an hartutako erabakiaren bitartez, aurreko aurrekarian azalduko kontratazioa Gorbeialdeko Kuadrillak egitearekin ados agertzea onartu zen.

Aipatutako kontratuaren luzapena bukatu ondoren, Udaleko Osoko Bilkuraren erabakiaren bitartez, 2015eko uztailaren 15ean hartutakoa, Udala berriz ere ados agertu zen kuadrillak lizitazioaren deialdia egin zezan Tokiko Agenda 21eko prozesuak kuadrillaren eremuan garatu eta dinamizatzeko laguntza teknikoko zerbitzuak esleitze aldera, zerbitzuaren prestazioan interesatutako udal bakoitzera zuzendutako dedikazioari eta urteko ordu kopuruari eutsiz.

**BIGARRENA.** 2017an, kontratuaren luzapena bukatu zenean, beste kontratu bat esleitzeko lizitazio berri baten deialdia egitea proposatu zuen Gorbeialdeko Kuadrillak, zerbitzuen prestazioaren orduak areagotuz urteko 1.170 orduko kopurura arte (200 ordu/urteko Urkabustaiz eta Aramaioko udalen artean, 250 ordu/urteko Zigoitiko Udalean eta 520 ordu/urteko Zuiakoan) eta garatu beharreko funtzioak areagotuz, honako hauek bilduz:

a) 2015-2019 legegintzaldirako Arabako Foru Aldundiaren Plan Estrategikoko "Ingurumeneko Helburu Estrategikoak" izeneko ardatzarekin lerrokatutako jarduketara guztiak.

b) Plan Estrategiko horretako gainerako ardatzekin lerrokatuta egon daitezkeen gainerako jarduketak eta, aldi berean, ingurumeneko helburu estrategikoekin lotuta edo lerrokatuta egon daitezkeenak.

c) Ingurumen iraunkortasuna sustatzeko jarduketak egitea bultzatzea, bereziki honako haue-tan jasotako jarduera eta programena:

– Arabako LHko Garapen Iraunkorreko I. Plana.

– Legegintzaldian zehar Arabako Foru Aldunditik ingurumen eta iraunkortasun arloan bultzatuko diren proiektu eta plan berriak.

– Toki erakundeek edo kuadrillek modu formalean onartu dituzten iraunkortasuneko tokiko estrategiak.

HIRUGARRENA. 2018ko abuztuaren 2an, Tokiko Agenda 21 eta ingurumen arloko laguntza teknikoko zerbitzuak modu mankomunatuan kontratatzea proposatu zien Gorbeialdeko Kua-drillak kuadrilla osatzen duten udalerriei, betiere gutxienez hiru udalerrri interesatuta egonez gero, guztira urteko 1.170 orduko prestazioarekin (honela banatuta: 200 ordu/urtean Urkabustaiz eta Aramaioko udalen artean, 250 ordu/urtean Zigoitiko Udalean eta 520 ordu/urtean Zuiako Udalean), honako funtzio hauek garatzeko:

a) Tokiko Agenda 21eko ekintzak eta prozesuak ezarri, abiarazi eta garatzeko laguntza.

b) Arabako Foru Aldundiko ingurumen helburu estrategikoekin lerrokatutako jarduketak, edo ingurumen helburuekin lerrokatuta dauden bestelako foru helburu estrategikoekin.

c) Ingurumen iraunkortasuna sustatzeko jarduketak egitea bultzatzea, bereziki honako haue-tan jasotako jarduera eta programena: -Arabako LHko garapen iraunkorreko planak -Arabako Foru Aldunditik ingurumen eta iraunkortasun arloan bultzatuko diren proiektu eta plan berriak.

– Toki erakundeek edo kuadrillek modu formalean onartu dituzten iraunkortasuneko tokiko estrategiak.

#### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENENGOA. Zuiako Udalak, 7/1985 Legearen 25.1 artikulua dioen moduan, Toki araubi-dearen oinarriak arautu zituen (aurrerantzean TAOAL), "bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, auzo erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzake".

BIGARRENA. Zigoitiko Udalak, TAOALeko 25.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, honako arlo hauek eskumenak ditu:

b) Hiri ingurumena: bereziki, parke eta lorategi publikoak, hiri hondakin solidoen kudeaketa eta babesa zarata, argi eta atmosfera kutsaduraren aurka hiri eremuetan,

c) hondakin uren tratamendua eta askatzea.

g) Trafikoa, ibilgailuak aparkatzea eta mugikortasuna Hiri garraio kolektiboa.

j) Osasun publikoaren babesa.

HIRUGARRENA. 63/1989 Foru Arauaren 1. artikulua, azaroaren 20koak, eskualdeei buruzkoak, Arabako kuadrillak eratu zituen lurralde esparruari dagozkion gaitan parte hartzeko eta arazo orokorrak sustatu eta kudeatzeko osatutako foru izaerako lurralde entitate bezala.

LAUGARRENA. 63/1989 Foru Arauko 28. artikulua honako hau ezarri zuen: "Eskualdeei, parte hartze eta kontsultarako eta interes komuneko zerbitzuak sustatu eta kudeatzeko erakunde bezala, honako gaiak dagozkie:

...

e) Eskualdearen interes orokorreko zerbitzuak sustatu eta kudeatzea”

BOSGARRENA. 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore publikoko kontratuei buruzkoak, zeinak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora, honako hau ezarri zuen 31.1 artikuluan:

“1. Sektore publikoko erakundeak elkarrekin lankidetzan aritu ahalko dira, eta lankidetzaren horren ondoriozko emaitza ezingo da kontratu gisa hartu.

b) Sektore publikoari dagozkion erakundeen lankidetzaren horizontaleko sistemen bitartez, alde aurretik kasuan kasuko hitzarmenak egin badira, 6. artikuluko 1. idatz zatian ezarritako baldintza eta mugekin.”

SEIGARRENA. Sektore publikoko kontratuei buruzko Legearen 6. artikuluan aplikazio eremu horretatik toki erakundeek elkarrekin egindako hitzarmenak salbuesteko ezarritako mugak eta baldintzak honako hauek dira:

a) Parte hartzen duten erakundeek ez dute merkatu bokaziorik izan behar (kolaborazioaren helburu diren jardueren %20 baino gutxiago merkatu irekian egiten direnean).

b) Hitzarmenak parte hartzen duten erakundeen arteko lankidetzaren ezartzea, haiei dagozkien zerbitzu publikoak ematerakoan helburu komunak lortzea bermatze aldera.

c) Lankidetzaren garatzean soilik interes publikoari lotutako oharrak gailentzea.

ZAZPIGARRENA. 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore publikoaren araubide juridikoari buruzkoak (aurrerantzean SPAJL), 47. artikuluan hitzarmenak definitu zituen ondorio juridikodun akordio gisa, administrazio publikoek xede komun bat lortze aldera sinatuak; horrez gain, hitzarmen moten artean, beste batzuekin batera, administrazio arteko hitzarmenak finkatu zituen (administrazio publiko biren edo gehiagoren artean sinatutakoak) eta ezarri zuen beste administrazio baten bitarteko, zerbitzu eta baliabideak erabili ahalko direla, eskumen propioak edo delegatuak baliatzeko.

ZORTZIGARRENA. Hitzarmenen baliozkotasun eta efikazia betekizunei dagokienez, SPAJLeko 48. artikuluan ezarri zuenez, “hitzarmenak sinatuz kudeaketa publikoaren efizientzia hobetu beharko da, bitarteko eta zerbitzu publikoen baterako erabilera erraztu, erabilgarritasun publikoko jarduerak egin daitezela lagundu, eta aurrekontu egonkortasunerako eta finantza jasangarritasunerako legeria bete”. Horren haritik, “hitzarmen batek barnean hartzen dituzten finantza konpromisoak hura sinatu duen administrazio publikoarentzat aurrekontu legerian xedatuta dagoena bete beharko da hitzarmen horren ondoriozko gastuekin” eta “finantza konpromisoak barnean hartzen dituzten hitzarmenek jasangarri behar dute finantzen aldetik, eta sinatzaileek gaitasuna izan beharko dute beren gain hartutakoak finantzatzeko hitzarmenak dirauen bitartean”.

BEDERATZIGARRENA. Hitzarmenetako edukiari dagokionez, SPAJLeko 49. artikuluan ezarritakoa bete beharko da.

Egin nahi dena gauzatze aldera, aipatutako aldeek honako klausula hauek onartu dituzte:

#### KLAUSULAK

LEHENENGOA. Hitzarmen honen helburua da Tokiko Agenda 21 eta ingurumen arloko laguntza teknikoko zerbitzuen prestazioa gauzatzeko baldintzak jasotzea (urtean 250 orduko prestazioa eskainiz Zigoitiko Udalean), Gorbeialdeko Kuadrillaren partetik, honako funtzio hauek garatzeko:

a) Tokiko Agenda 21eko ekintzak eta prozesuak ezarri, abiarazi eta garatzeko laguntza.

b) Arabako Foru Aldundiko ingurumen helburu estrategikoekin lerrokatutako jarduketak, edo ingurumen helburuekin lerrokatuta dauden bestelako foru helburu estrategikoekin.

c) Ingurumen iraunkortasuna sustatzeko jarduketak egitea bultzatzea, bereziki honako haue-  
tan jasotako jarduera eta programena:

– Arabako LHko garapen iraunkorreko planak.

– Arabako Foru Aldunditik ingurumen eta iraunkortasun arloan bultzatuko diren proiektu  
eta plan berriak.

– Toki erakundeek edo kuadrillek modu formalean onartu dituzten iraunkortasuneko tokiko  
estrategiak.

BIGARRENA. Hitzarmena gauzatu ahal izateko, alde sinatzaileek konpromiso hauek hartu  
dituzte:

#### A) ZIGOITIKO UDALA:

1. Une bakoitzean aurrekontuari dagokionez indarrean dagoen legedian ezarritakoa betez,  
Gorbeialdeko Kuadrillak Tokiko Agenda 21 eta ingurumen arloko laguntza teknikoan emandako  
zerbitzuen defizitean laguntzea, Gorbeialdeko Kuadrillak emandako zerbitzuaren kostu aurrei-  
kuspenei aurre egiteko beharrezko aurrekontu kreditua gehituz urteko udal aurrekontuan ekitaldi  
ekonomiko bakoitzaren hasieran. Ordaindu beharrezko kopurua ekitaldi ekonomiko bakoitzean  
udal aurrekontuaren 170.421.000 aplikazioan kontsignatutako kopurua izango da, hitzarmen  
hau indarrean dagoen bitartean.

2. Hitzarmen honen xede diren zerbitzuak kontratatzea arautuko duten baldintza agiri-  
ekin ados egotea edo egokitzea jotako alegazio edo ekarpenak egitea, horien lizitazio prozedura  
izapidetu aurretik.

3. Laguntza teknikoko zerbitzuaren prestazioaren kostua ordaintzea Gorbeialdeko Kuadrillari,  
Arabako Foru Aldundiak diruz laguntzen ez duen kopuruan (Toki Erakundeak Finantzatzeko  
Foru Funtsaren kargura, TEFFF), eta Tokiko Agenda 21 eta ingurumen arloan laguntza teknikoko  
zerbitzuak Zigoitiko Udalean izango duen prestazio presentzialaren urteko ordu kopuruaren  
proporzioan.

4. Hitzarmenaren xede diren zerbitzuak emateko beharrezko finantzaketa modura, alde  
aurretik bi ordainketa egitea (ekitaldi ekonomiko bakoitzaren azken hiruhilekoan Gorbeialdeko  
Kuadrillak egindako kostu eta diru sarreraren aurreikuspenen arabera); Tokiko Agenda 21 eta in-  
gurumen arloan laguntza teknikoko zerbitzuak eman izanari lotutako kostu erreala justifikatu  
aurretik funtsak ematean datza. Ordainketak honela egingo dira: % 50 otsailan eta gainerako  
% 50a urte bakoitzeko irailean. Ekitaldi ekonomiko bakoitza ixtean, Gorbeialdeko Kuadrillak  
ingurumen arloko laguntza zerbitzuen prestazioaren kostu erreala justifikatu ondoren zerbitzuen  
finantzaketan defizita baldin badago, Zigoitiko Udalak leporatu dakioken aldea ordaintzeko  
betebeharra izango du.

#### B) GORBEIALDEKO KUADRILLA:

1. Hitzarmen honen xede diren zerbitzuak finantzatzen laguntzeko beharrezko dirulaguntza  
eskaerak izapidetzea kasuan kasuko erakunde publiko edo administrazioei.

2. Zigoitiko Udalaren adostasuna eskatzea, hitzarmen honen xede diren zerbitzuak kontra-  
tatzea arautuko duten baldintza agiri-ekin dagokienez, izapidetzen hasi aurretik; Zigoitiko Udalak  
egokitzea jotako alegazio edo ekarpenak egin ahalko ditu.

3. Zigoitiko Udala informatzea, adostasuna emate aldera, hitzarmen honen xede diren zer-  
bitzuen prestazioaren konfigurazioan edozein aldaketa egin nahi bada, besteak beste, balizko  
luzapenak, bertan behera uztea, zerbitzuen erakunde edo pertsona esleipendunak uko egitea  
edo bestelako edozein inguruabar garrantzitsu.

4. Tokiko Agenda 21 eta ingurumen arloko laguntza teknikoko zerbitzuak emateari dagozkion  
kostuen aurreikuspena egitea, ekitaldi ekonomiko bakoitzeko azken hiruhilekoan gastuen eta  
diru sarreraren aurreikuspen txostena eginez eta Zigoitiko Udalera igorritik, udal horrek dagozkion  
aldez aurreko ordainketak egiteko aski kreditu jaso dezan aurrekontuan.

5. Urte bakoitzeko otsailaren 28a baino lehen, hitzarmen honen xede diren zerbitzuen pertsona edo erakunde esleipendunak egindako jarduketan justifikazio memoria aurkeztea, baita diru sarreraren zerrenda (kopurua eta jatorria adieraziz) eta gastuen zerrenda ere.

6. Gorbeialdeko Kuadrillak ingurumen arloko laguntza zerbitzuak ematearen kostu erreala justifikatu ondoren Zigoitiko Udalaren finantzaketa gehiegizkoa bada, Gorbeialdeko Kuadrillak gehiegizko kopuru hori itzuli beharko dio.

HIRUGARRENA. SPAJLko 49.h) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, hitzarmen hau lau urtez egongo da indarrean, hau da, sinatzen den unetik.

Hala ere, epe hori bukatu aurretik hitzarmena sinatu duten erakundeek aho batez adostu ahalko dute hitzarmena beste lau urterako luzatuko den edo bertan behera utziko den.

LAUGARRENA. Batzorde bat eratuko da, eta kontratua gauzatzea kontrolatu eta horren jarraipena egiteaz arduratuko da; Gorbeialdeko Kuadrillako ordezkari batek eta Zigoitiko Udaleko ordezkari batek osatuko dute.

Erakunde horrek funtzio hauek izango ditu:

– Tokiko Agenda 21 eta ingurumen arloko laguntza teknikoko zerbitzuak ematean sor daitezkeen balizko gatazkak argitzea, baita hitzarmen hau interpretatzean sor daitezkeen zalantzak argitzea ere.

BOSGARRENA. Hitzarmenaren xede diren zerbitzuak modu eskasean ematen badira edo ez bada betetzen, prestazioan izandako gabeziak edo prestaziorik eza idatziz jakinaraziko dizkio Zigoitiko Udalak Gorbeialdeko Kuadrillari, idatzia jasotzen denetik 10 egun naturaleko epean zerbitzuen kontratuaren pertsona edo erakunde esleipendunek egokitzen jotakoa argudiatu dezan; alegazioak ikusita, Gorbeialdeko Kuadrillak antzemandako egoera ebazteko egokitzen jotako erabakia hartuko du.

SEIGARRENA. Hitzarmen hau suntsiarazteko kausak honako hauek izango dira:

- Indarraldia igarotzea.
- Sinatu duten aldeek aho batez adostea.
- Aldeetako batek hartutako konpromiso ekonomikoak edo betebeharrak ez betetzea.
- Hitzarmena baliogabea dela ebazpen judizial bidez aitortzea.
- Hitzarmenaren klausulak betetzea ezinezkoa izatea eragiten duten bat-bateko kausak.

ZAZPIGARRENA. Hitzarmena interpretatu eta betetzean sor daitezkeen auziak administrazioarekiko auzi jurisdikzionalako ordenari jakinarazi beharko zaizkio eta haren eskumenekoak izango dira.

Hitzarmena sinatzen duten aldeek, dagokien neurrian, dokumentu honetan ezarritako xehetasunak haien gain hartzeko konpromisoa hartzen dute.

Ondategi, 2018ko azaroaren 2a

*Alkatea jardunean*  
**NEREA TXURRUKA GARATE**